

Galdera

"Asteazkena, 2021ko azaroak 10" ikusi dut agerkari batean, data horrela idatzita. Ondo al dago?

Erantzuna

"Asteazkena, 2021eko azaroak 10" da forma egokia. Urtearen deklinabide-marka ez da zuzena: *2021ko

1/ Hona zer dioen Euskaltzaindiaren 37. arauak ([Data nola adierazi](#)):

Data adierazteko orduan, hortaz, forma hauek erabil bitez:

- Durango(n), 1995eko martxoaren 7a(n), aukeran utziz inesiboaren marka.

- 1995/03/07; 1995-03-27; 1995/III/07; 1995-III-27; 1993-11-23ko

bilera agiriak dioenez...

- Urtarrilak 20 bezalakoak ere erabil daitezke, baina aposizioan:

gaur, urtarrilak 20 bezalakoetan (beraz, *otsailak 20 egin zuten bilera ez da zuzena).

2/ Hona zer dioen Euskaltzaindiaren 12. arauak ([Bat eta batzuk-en deklinabidea](#)):

Hortaz, literatura tradizioaren bilakaera hau gogoan harturik, leku-denborazko kasuei dagokienez, forma hauek erabakitzen ditu Euskaltzaindiak euskara baturako (kontuan izan bata, batak eta halakoak beste hitzaren agerraldi mugatu baten eraginpean bakarrik erabiltzeko direla):

Mugagabea	Mugatua
...	...
bateko	bateko

3/ Jagoneten galde-erantzunetan ([Data adieraztea: data aposizioan](#)):

Garbi dago zein den data emateko Euskaltzaindiak gomendatutako moldea: Durango(n), 1983ko martxoaren 7a(n).

Molde hau ikusten da, ordea, zenbait egunkari-astekaritan data adieraztean: **Igandea, 2017ko azaroak 9. 37. arauak** dio aposizioan bakarrik erabil daitezkeela azaroak 9 bezalakoak, eta [Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna, 100. or.](#) liburuak dio tituluetan ere erabil daitezkeela. Egokia da adibideko moldea?

Bai, adibidea zuzen dago. Arauan "aposizioan bakarrik" erabil daitezkeela esatean, esan nahi du ezin zaiola kasu-markarik erantsi; hots, ez dela zuzena *azaroak 9an, esaterako. Ikus "[Data adieraztea: deklinabidea \(ekainak 18 / ekainaren 18a\)](#)"

4/ Euskara Batuaren Eskuliburuan ([data nola eman](#)), berriz, erantzunaren 3. Puntuan, honela dio:

3. *Urtarrilak 20* bezalakoak ere erabil daitezke, baina aposizioan soilik —koma artean— (gaur, urtarrilak 20), tituluetan (**2016ko azaroak 14**) eta gisakoetan. Beraz, kasu horietatik kanpora ez da zuzena: **Otsailak 24tik 27* arte izan zen (> *Otsailaren 24tik...*) // *Datorren *otsailak 14* egingo dugu bilera (> *otsailaren 14an*). *Azterketak *urtarrilak 23tik otsailak 9ra* izan dira (> *urtarrilaren 23tik otsailaren 9ra*).

5/ Euskarazko agerkari horren bertsio elektronikoan, honela ageri da data:

Osteguna
2021eko azaroak 11

Baina, *etxe guztietan laratza beltza —eta gurean beltzago—*, honela azaltzen da sakelako telefonoen bertsioan, software-akats baten ondorioz, hain segur ere:

Osteguna, 2021ko azaroak 11

Izan ere, telefonoa horizontal jarriz gero, berriz agertzen da deklinabide-marka zuzena:

Osteguna
2021eko
azaroak 11